



## **“IORTIA” KULTUR GUNEAREN ERABILERARI BURUZKO ARAUDIA (NAO 206 zbk, 2015eko urriak 16)**

### **ATARIKOA**

Iortia Kultur Gunea 2003ko apirilaren 4an ireki zen artearen eta kulturaren espazio erreferente izateko Altsasuko herriarendako. Ordutik, erabiltzeko hainbat eskaera jaso ditu esparru ezberdinetatik, pribatuak nahiz publikoak izan. Frontoiko zeharbidean (zk.g.) kokatzen den kultur gune honen titularra Udala da eta, beraz, berari dagokio haren funtzionamendua eta erabilera arautzea, erregelamendu honetan jasotako arauei jarraituz.

### **LEHENBIZIKO KAPITULUA. Helburua eta izaera**

1. artikulua. Iortia Kultur Gunea Udalaren ekipamendua da eta bertan biltzen dira Udalaren Kultur Zerbitzuko administrazio-bulegoak, udal liburutegia eta erabilera publikoko hainbat espazio, hirugarrenek erabiltzeko laga daitezkeenak: auditorioa (301 jarleku), 2. aretoa (97 jarleku), erakusketa gela eta erabilera anitzeko gela. Horietaz gain biltegi bat ere badago, Altsasuko kultur eta gizarte arloko entitateek bakarrik erabil dezaketena.

2. artikulua. Kultur gunea xede bikoitzarekin sortu zen: batetik, kulturara iristea errazten duten zerbitzuak eta jarduerak sustatzea eta, bestetik, herritarrek herriko kulturaren garapenean parte har dezaten bultzatzea.

3. artikulua. Kultur guneak espazio espezializatuak eskaintzen dizkie entitate eta artistei, artelanak sortu eta zabaltzeko.

4. artikulua. Kultur gunean kulturarako espazio berezia, kalitatezkoa eta interesgarria sortu nahi da, eragile ezberdinen arteko lankidetzan eta parte-hartzean oinarrituz, Altsasuko eta eskualdeko gizartearen beharrei eta nahiei erantzutearren.

5. artikulua. Udalak kultur gunea Estatuko edo autonomia erkidegoetako sareetan sartu ahalko du edo sartzeko baimena emanen, eta interesekotzat jotzen diren beste erakunde batzuekin lankidetzan hitzarmenak sinatu ahalko ditu, gunearen xedeetarako onuragarri badira.

### **BIGARREN KAPITULUA. Funtzionamendua/antolaketa/kudeaketa. Barne araubidea**

6. artikulua. Kultur gunea Udalaren Kultur Zerbitzuari atxikita dago, eta zerbitzu hori arduratuko da bertan egiten diren jardueren antolamenduz, kudeaketaz eta jarraipenaz, bai eta instalazioak zaindu eta hobetzeaz ere.

7. artikulua. Kultur gunearen ordutegia.

–Astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 21:00etara. Asteburuetan eta jaiegunetan programatutako ikuskizun edo jarduera bakoitzerako behar den ordutegian irekiko da.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

–Udako ordutegia (ekainaren 15etik irailaren 15era): astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:30era.

Altsasuko Udalak ordutegi hori aldatu ahalko du, antola litezkeen jardueren beharren ariora, betiere eraikina kudeatzeko hartutako konpromisoekin bateragarria bada eta diru galerarik ekartzen ez badio Udalari, ezta eskubideen murrizketarik ere langileei.

8. artikulua. Udalak antolatuko du gunearen kultur eskaintza. Aretoak erabiltzeko baimena emanen da, baldin eta horren premiarik ez baldin badu Udaleko Kultur Zerbitzuak bere programa garatzeko. Dena dela, instalazioa erabilgarri dagoen egunetan beste entitate publiko edo pertsona fisiko edo juridikoek ere erabili ahalko dute, horretarako udal baimena baldin badute.

9. artikulua. Kultur gunearen programazioari dagokionez, plangintza hiruhilero egingen da ziklo hauen arabera: negua (urtarrietik martxora), udaberria (apiriletik ekainera), eta udazkena (irailtik abendura).

10. artikulua. Programazio egonkorra eta sarreraren prezioak Tokiko Gobernu Batzarrak onetsiko ditu, gutxienez hiruhilero, Kultur Batzordeak proposatuta.

### **HIRUGARREN KAPITULUA. Eremuen erabilera**

11. artikulua. Kultur gunea irekia dago herritar oroendako.

12. artikulua. Erabiltzaile guztiek eskubide eta betebeharrak berberak dituzte, eta horiek udal instalazioen sarearen erabilerrari buruzko arauan, 21 eta 22. artikuluetan, jasotzen dira.

13. artikulua. Iortia Kultur Gunearen espazioak eta dotazioak erabiliko dira araudi honetan ezarritakoari jarraituz eta areto bakoitzari berez dagokion erabilera kontuan hartuz.

13.1. Auditorioa: arte ekoizpena eta/edo erakusketara bereziki bideratutako espazioa da. Horregatik, arte adierazpen orotako emanaldiak lehenetsiko dira bertan: musika, antzerki, dantza, zinema arlokoak edo horien antzekoak. Dena den, toki gehiagoren beharra dagoenean, auditorioa beste kultur jarduera batzuk gauzatzeko ere utzi ahalko da; hala nola, konferentziak, jaialdiak, sari banaketak edo antzekoak. Inguruabar berezietan eta salbuespen gisa, aipatutakoez besteko jardueretarako erabili ahalko da (herritarren bilkurak, sindikatuenak, ekitaldi politikoak, ezkontza zibilak eta abar).

13.2. Hitzaldi-aretoa: Mota guztietako gizarte eta kultur arloko jardueretarako erabiliko da batez ere.

13.3. Erabilera anitzeko gela: Mota guztietako gizarte eta kultur arloko jardueretarako erabiliko da batez ere.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

13.4. Erakusketa gela: Erakusketa gela batez ere arte plastikoetara (pintura, eskultura, argazkigintza, ilustrazioa, grabatua, bideoartea...), artisautza eta dekorazio arloko arteetara bideratutako espazioa da. Orobat, dokumentu, etnografia eta zientzia arloetako ondarea zabaltzeko ekintzak ere jasoko ditu. Hartara, Udalak gelaren erabilera lagako du erakusketek izaera artistiko, kultural, didaktiko, zientifiko edo etnografikoa baldin badute soilik.

13.5. Biltegia: gunean bada biltegi bat, nahi duten entitateek beraien lanabesak uzteko eta gordetzeko, betiere beraien erantzukizupean eta erabiltzeko baimenak irauten duen bitartean.

13.6. Kultur guneko atalondoa pasabidea baino ez da, eta bertan ezin izanen da modu iraunkorrean egon.

14. artikulua. Kultur gunean jarduera iraunkorrak eta puntualak egin ahalko dira, ohikoak nahiz ohiz kanpokoak, betiere horretarako baimenarekin. Ohiko jardueratzat jotzen dira artearen arlokoak eta/edo gizarte-kultur arlokoak; ohiz kanpokoak izanen dira, berriz, gainerako guztiak.

15. artikulua. Administrazio publikoek, erakundeek eta entitateek Iortia Kultur Guneko erabilera publikoko espazioak puntualki erabiltzeko eskaera egin ahalko dute, areto bakoitzari eta bere instalazioei egokitutako jarduerak egiteko, prozedura honi jarraituz:

16. artikulua. Eskaera: jarduera mota bakoitzerako eskabidea beteko da, araudi honen eranskinean jasotako eredu erabiliz, datu guztiak ahalik eta modu zehatz eta argiengan adieraziz, honako epe hauetan:

a) Enpresek, elkarteek, entitateek edo partikularrek, Auditorioa adierazpen artistikoak egiteko erabili nahi badute, idatziz eskatu beharko dute, beti aurreko hiruhilekoan. Eskabidean nahitaez adierazi beharko dira: entitate antolatzailea (sustatzailea), jarduera mota, gauzatuko den programa, parte hartzen duten artistak, data, ordutegia, sarreraren prezioa.

b) Altsasun programazio iraunkorra duten entitate artistikoek, jarduera iraunkor horietarako, entsegurako lokal gisa, aretoren bat erabiltzeko interesa badute, idatziz eskatu beharko dute kurtso hasieran (abuztua). Eskabidean nahitaez zehaztuko dira: entitatea, jarduera mota, erabilera egutegia eta ordutegia; horretaz gain, konpromisoa hartuko dute urtean zehar gutxienez 4 jarduera egiteko.

c) Erakusketa gela erabiltzeko interesa duten artistek idatziz eskatu beharko dute behar den eskabidearen bitartez, haren atal guztiak beteta (eranskina) eta interesdunak sinatuta. Kurtso hasieran aurkeztu beharko dute (irailean).

d) Gainerako eskabideak 15 egun lehenago aurkeztuko dira gutxienez.

Udalaren Kultur Zerbitzuak eskatutakoaz ebazteko egoki irizten dion informazio osagarri guztia eskatzen ahalko du.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altzasu.net

altzasu@altzasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

17. artikulua. Eskabideko datuak egiaztatuta eta eskatutako espazioak eta zerbitzuak eskura direla frogatuta, baimena emanen da, lagatzeko baldintzak eta modua zehaztuta.

18. artikulua. Ondotik eskatzaileari prezio publikoa ordaintzeko eskatuko zaio, baimendutako data baino hilabete lehenago gutxienez. Sarrera kobratzen den alokeren kasuan, Udalak leihatilan lortzen den diru-bilketatik jasoko du alokerari dagokiona eta Egile eta Editoreen Elkarteak (SGAE) aplikatzen duen portzentajea. Leihatilako diru-bilketa alokera gastuak baino murriztagoa bada, errentariak Altsasuko Udalari dagoen aldea ordainduko dio bankuko transferentzia bidez, eskabidearen inprimakian adierazitako Udalaren kontuan, emanaldiaren ondoko lehenengo egun baliodunean. Trasferentzia egin izanaren egiaztatzea e-mail honetara igorri beharko da: iortia@altzasu.net, egin den egun bereko goizean.

19. artikulua. Lagatuko espazioa eta lagapen denbora zehaztuko dira aretoen beharra eta erabilgarritasuna kontuan hartuz. Erabilera baimendu horiek ekipamenduko langileek gainbegiratuko dituzte eta betiere erabilera araudia betetzen dela begiratuko dute.

20. artikulua. Aretoak erabiltzeko, bertako informazio gunera/atezaintzara jo beharko dute, huraxe arduratuko baita irekitzeaz eta ixteaz eta haiek beren jardueran aritzeko behar duten materialaz hornitzeaz.

21. artikulua. Kultur gunea ez da talde edo entitate baten egoitza izanen, baina denek erabili ahalko dituzte bertako aretoak behar duten guztietan, betiere erabilgarritasunaren arabera. Ez zaio inongo entitateri espaziorik utziko modu eskusibo eta iraunkorrean.

22. artikulua. Uneoro errespetatuko dira guneko barnealdeko eta kanpoaldeko instalazioak, eta ezin izanen dira kartelak, pankartak, pegatinak eta abar itsasi edo jarri eraikinaren paretetan, zoruari, sabaian edo zutabeetan, aldeaz aurretik gunearen zuzendaritzak ez badu horretarako baimenik eman. Antolatzaileak ezarriko ditu emanaldi bakoitza iragartzeko panelak edo bistaratzaileak. Erabiltzen diren panelak autosostengagarriak izanen dira.

23. artikulua. Hauteskunde kanpaina garaian, espazioak lagako dira Hauteskunde Batzordeak programatutako ekintzen arabera.

### **LAUGARREN KAPITULUA. Iortia Kultur Guneko aretoak erabiltzeko baldintza zehatzak**

4.1. Auditorioa lagatzeko eta erabiltzeko baldintza zehatzak.

24. artikulua. Udal instalazioen sarearen araudiaren VI. kapituluan ezarritako beharkizunak beteko dira.

25. artikulua. Ikuskizun artistikoen sustatzaileak (antzerkia, musika, dantza), auditorioa erabiltzeko baimena jakinarazi eta emanaldia baino hilabete lehenago gutxienez, edo hura antolatzeko behar beste denboraz, Udalaren Kultur zerbitzuari lanerako plan bat eman beharko diote. Bertan zehaztuko dituzte: argien planoa, rider teknikoa, muntaketa eta entseguen ordutegia, eta programatutako jardueraren antolaketari eragiten dion inguruabar oro. Halaber,



pertsona bat izendatuko du arduradun teknikoa izateko eta Udaleko kultura teknikariarekin harremanetan egoteko, emankizuna antolatu eta artistikoki hobeki gara dadin.

26. artikulua. Muntaketa lanak hasiko dira emankizunaren antolakuntzak ezarritako epean, Udaleko Kultur Zerbitzuak onetsi ondotik, eta zerbitzu horrek ezarriko du lan-ordutegia. Materialen zama lanak sustatzailearen kontura izanen dira, Udaleko Kultur Zerbitzuak ezarritako jarraibideak kontuan hartuz. Inola ere ez dira aretoetako irteerak tratatu edo oztopatzen dituzten materialak edo objektuak sartuko.

27. artikulua. Emankizuna bukatutakoan, entitate antolatzaileak aretotik atera beharko ditu bertan erabilitako bere jabetzako material, tresna eta eszenografiak.

28. artikulua. Auditoriokoak bertakoak ez diren material teknikoaren alokeragatik sortutako gastuak zuzenean bere gain hartuko ditu zinegotzikoak, administrazioak, entitateak edo eskatzaile partikularrak, kasua kasu. Udaleko Kultur Zerbitzuak ez du bere gain hartuko bereak ez dituen jarduerak antolatzeke alokatutako materialen kostuak.

29. artikulua. Emankizunaren antolatzaileak kontuan hartuko du aretoa jardunaldi erdirako edo osorako erabiltzeko eskatu eta tasa likidatzerakoan, ordaindu beharreko denbora ez dela izanen soilik ekitaldia edo emankizuna egiteko erabilitakoa, baizik eta muntaketa eta desmuntaketa lanak egiteko erabilitakoa ere ordaindu beharko duela.

30. artikulua. Auditorioa erabiltzeko baimena jasotzen duten eskabideek entsegurako lokal gisa erabili ahalko dute. Betiere erabili ahalko da lokalaren programazioaren eta erabilgarri dagoen ordutegiaren arabera.

31. artikulua. Ekipamendu honen errentagarritasun kultural handiagoa erdietsi beharrez, Altsasuko Udalak entitateekin, taldeekin edo artistekin hitzartzen edo adosten ahalko du auditorioaren lagapena, ordain baten trukean; hala eginez gero, behar den kontratua sinatuko da.

4.2. Erakusketa gela lagatzeko baldintza berariazkoak.

32. artikulua. Eskaera: gelan beraien artelanak erakutsi nahi dituzten artistek idatziz eskatu beharko dute, behar den eskabidea erabiliz (II. eranskina), haren atal guztiak beteta eta interesdunak sinatua. Eskabide hori Iortia Kultur Guneko administrazioan aurkeztu beharko da.

Eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Historia profesionala.
- b) Egindako erakusketen zerrenda.
- c) Lortutako sarien zerrenda.
- d) Prensako iruzkin kritikoak.



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.altsasu.net  
altsasu@altsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

e) Erakutsi beharreko obraren txosten fotografikoa (gutxienez ere 5 argazki, gutxienez ere 9 × 12 cm tamainakoak).

33. artikulua. Eskerak onartzeko kontuan hartuko dira erakusketariaren curriculum vitae-a, obraren kalitatea, haren originaltasuna etab.

Udalak idatziz adieraziko dio eskatzaileari eskaera onartu edo ezetsi zaion eta erakusketarako egun jakin batzuk eman dizkiotela. Bere eskaerari erantzunez erakusketarako egun jakin batzuen jakinarazpena jasotzen duen artistak adostasuna adierazi beharko du 20 egunean. Hala egiten ez badu, emandako egun horiei uko egiten diela ulertuko da eta bazterturik geldituko da eskaera egin duen urteko erakusketarien zerrendatik, alde zuzeneko programazioaren ordena egokia ez bestelakotzeko.

Erakusketen egutegia urtekoa da (urtarril-abendua). Programazioa aitzin urteko irailetik abendura bitarte prestatuko da, jasotako eskaerekin.

34. artikulua. Orokorrean, bi aste iraunen du gutxienez eta hilabete gehienez. Data horiek Kultur Zerbitzuak erabakiko ditu.

Irekitzeko orduak ikusgai jarriko dira jendearendako eta ondotik zehazten den bezala izanen dira:

–Asteleheneetik larunbatera, 18:00etatik 21:00etara.

–Igandeak eta jaiegunak, 16:00etatik 21:00etara.

Salbuespen gisa, ordutegia larunbata eta igandeetara zabaldu ahalko da, Udalak hala erabakitzen badu.

Kultur guneko langileek ireki eta itxiko dute aretoa.

35. artikulua. Obra garraiatzeko, bidaltzeko eta itzultzeko gastu guztiak erakusketariaren bizkar izanen dira, non ez den bestela egitea komeni obraren interesaren kariaz, eta Udalak horrela erabakitzen duen. Beharrezkoa iruditzen bazaio, erakusketariak bere obrak aseguratzeko ahal ditu, bere kontura eta bere bizkar.

36. artikulua. Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko, baldin eta istripu, lapurreta, sute, hondamendi edo bestelako arrazoiren batengatik obrak osorik edo parte batean suntsitzen badira. Erakusketariak (edo lagapenaren titularrak) Altsasuko Udala osotara salbuetsiko du egin beharreko jarduera gauzatzen ari dela izan daitezkeen inguruabar eta gorabeherengatik izanen liratekeen erantzukizunetatik, eta espresuki uko egingen dio udal horren aitzinean egin lezakeen edozein eskari egiteari, kalte-galeren ordaina barne.



## Altsasuko Udala

Ayuntamiento de Alsasua

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

www.altsasu.net

altsasu@altsasu.net

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

37. artikulua. Muntaketa egiteko ordutegia 9:00etatik 14:30era izanen da. Artistak arduratu beharko du erakusketaren muntaketaz eta desmuntaketaz, berak edo behar bezalako egiaztagiria duen bere konfidantzazko pertsona baten esku jarrita. Dena dela, kultur guneko langileen laguntza izanen du.

38. artikulua. Gelako apaingarriak bestelakotzea edo haren paretak honda ditzaketen materialak erabiltzea badakar, ez da aldaketarik batere onartuko. Artistak eskura izanen du gelako materiala, eta erabili ondoan berak arduratu beharko du bere lekuan uzteaz.

39. artikulua. Altsasuko Udalak erakusketa iragartzeko kartel bat eta txartel bat egingen du, egoki juzgatzen duen moduan, osotara bere kontura. Altsasuko Udalak txartelak eta kartelak igorriko dizkie kultur entitate, erakunde eta korporazio ofizialei, baita hedabideei ere. Norbanakoei igortzea erakusketariaren kontura izanen da.

Lagapenaren titularrak publizitate osagarria egin ahalko du, bere kontura, Altsasuko Udalak egindako hedabide beretan eta ezaugarri berekin.

40. artikulua. Gela zaindua dago segurtasuneko bi kamerarekin eta irudiak grabatzeko dagokion sistemarekin. Udalak baimena emanda, artistak bere kontura hartzen ahalko ditu nahi dituen segurtasun neurriak. Alde horretatik gertatzen ahal diren gorabehera guztiak erakusketariak hartuko ditu bere gain, Udalak ez baitu kalte-galerengatik batere ordaindu beharko.

4.3. Biltegiaren erabilerarako baldintzak.

41. artikulua. Biltegia erabiltzeko eskariak hamabost egun lehenagotik egin beharko dira gutxienez. Horretarako eskabide ofiziala bete beharko da eta bertan adieraziko, entitate edo erabiltzailearen izena, haren beharraren arrazoiak eta bertan utziko den materialen zerrenda.

42. artikulua. Materiala kaxetan gordeko da eta haietan entitatearen izena jarriko da. Ekipamenduko langileek erabakiko dute haien kokalekua biltegian.

Udalak ez du erantzukizunik izanen bertan utzitako materiala galdu, lapurtu edo kaltetzen bada.

### **BOSGARREN KAPITULUA. Erabilera arauak**

a) Puntualtasuna: Ikuskizuna hasi ondotik ez da aretora sartzen utziko, ekitaldiartean edo atsedendian ez bada. Egoera horretan, sarreraren jabeak ez du haren zenbatekoa itzultzeko eskubiderik izanen eta ezin izanen da sarrera hori berriro saldu.

b) Aretora sartu ahal izateko, nahitaezkoa da sarrera edo gonbidapena erakustea.

c) Emanaldiak dirauen bitartean jendeak isilik egon behar du.

d) Hots-seinaleak: aretoen barruan sartzen denean sakelako telefonoak itzali beharko dira, baita mota guztietako alarmak ere.





e) Grabazioak eta argazkiak: erabat debekatuta dago ikuskizunetan inongo filmaketa edo grabaziorik egitea, salbu eta zuzendaritzak baimendu baldin baditu.

f) 6 urtetik beherakoek heldu batekin sartu beharko dute.

g) Ezin da Kultur gunean janariarekin edo edariarekin sartu.

h) Programaturiko jarduera eta ikuskizunetako guztietan garbi adieraziko da zein adinetako jendearentzat diren. Arreta jartzea eskatzen da.

### **SEIGARREN KAPITULUA. Sarrerak eta erabiltzaileak**

43. artikulua. Sartzeko, areto bakoitzaren edukieraren araberako sarrera zenbakidunak erabiliko dira, 301 eserleku auditorioan eta 92, berriz, 2. aretoan. Sarrera horiek salgai egonen dira Udalak ezarritako egun eta ordutegian. Sarreraren tarifa ezarriko da prezio publikoei buruzko arauan.

44. artikulua. Emanaldi jakin bateko muntaketako behar tekniko bereziak salbu, aretoko edukiera guztia jarriko da salgai.

45. artikulua. Kultur gunean antolatutako ikuskizunen sarrerak jendearen eskura izanen dira bai leihatilan bai online ([www.iortiakultura.com](http://www.iortiakultura.com)). Ikuskizunaren egunean leihatila emankizuna baino ordubete lehenago irekiko da eta bost minutu lehenago itxiko.

46. artikulua. Sarrerak zenbakidunak dira.

47. artikulua. Erreserbak, egin eta hurrengo hiru eguneko epean jaso beharko dira eta betiere emankizuna baino astebete lehenago. Epe horretan jasotzen ez badira, berriz ere salgai jarriko dira eta ez da erreklamaziorik egiteko aukerarik izanen.

48. artikulua. Udalak, dagokion ordenantzan ezarritakoari jarraituz, beherapenak dituzten sarrerak emanen dizkie talde jakin batzuei. Sarrera horiek interesdunak jasoko ditu leihatilan, karneta edo dagokion frogagiria aurkeztuta.

49. artikulua. Internet bidez eskatutako sarrerak leihatilan jaso ahalko dira.

50. artikulua. Sarreretan adieraziko dira ikuskizunaren izena, emankizunaren eguna eta ordutegia, eserlekuaren lerroa eta zenbakia, eta zenbatekoa. Hori guztia egiaztatu beharko da sarrerak jaso aurretik. Ez da aldaketarik ez itzulketarik onartuko, salbu eta Udalak jarduera eteten badu.

51. artikulua. Altsasuko Udalak luzatzen dituen sarrerek balioko dute soilik.

Xedapen gehigarri bakarra.–Erregelamendu honetan ezarri gabeko kasuak ebazteko, Erabilera publikoko instalazioen sarea erabiltzeari buruzko ordenantzan ezarritakoari jarraituko zaio.





## Altsasuko Udala

*Ayuntamiento de Alsasua*

I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61

FAX 948 56 38 55

[www.alsasu.net](http://www.alsasu.net)

[alsasu@alsasu.net](mailto:alsasu@alsasu.net)

✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

Edonola ere, Udalari dagokio zalantzarik sor dezaketen artikuluen azken interpretazioa egitea, Gizarte eta Kultur Batzordearen bitartez, eta, bestela, ezinbestean, Udaleko Osoko Bilkurari.

Xedapen indargabetzaile bakarra.–Indargabetuta geldituko da Iortia Kultur Gunearen erabilera arautzen duen ordenantza, Altsasuko Udalak 2003ko otsailaren 28ko osoko bilkuran hasiera batez onetsi eta 2003ko 189. Nafarroako Aldizkari Ofizialean, uztailaren 11n, argitaratua, bai eta ondotik egindako aldaketak ere.



**Altsasuko Udala**  
Ayuntamiento de Alsasua  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.altsasu.net  
altsasu@altsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

## I. ERANSKINA

### Iortia Kultur Gunearen eskabidea egiteko inprimakia

**Elkartea** /Entidad

**I.F.Z.** /C.I.F.

**Arduraduna\***/Responsable

**N.A.N.** /D.N.I.

**Elkartearen Helbidea \***/Dirección Social

**Posta Kodea** /Código Postal

**Herria \***/Población

**Teléfonoa** /Teléfono

**Posta elektronikoa** /Correo electrónico

**Ekintza** /Actividad



Antzerkia-Kontzertua-Dantza / Teatro-Concierto-Danza



Konferentzia-Aurkezpena-Kongresua / Conferencia-Presentación-Congreso



Ikus-entzunezko proiektzioa / Proyección audiovisual



Bilera / Reunión



Entseguak/Ensayos:

**Erreserbatu nahi duzun gunea** /Espacio que quieres reservar

**Ekitaldiaren deskripzioa** /Descripción del evento

- Programa a ejecutar:

- Artistas intervinientes

**Data eta ordua** /Fecha y hora

**Iraupena, gutxi gorabehera** /Duración aproximada

**Sarreraren prezioa** / precio entrada

**Zenbat ikusle aurreikusten diren** /Previsión asistencia



**Altsasuko Udala**  
*Ayuntamiento de Alsasua*  
I.F.K. / C.I.F.: P-3101000-B

☎ 948 56 21 61  
FAX 948 56 38 55  
www.alsasu.net  
alsasu@alsasu.net  
✉ Garcia Ximenez 36 - 31800

## II. ERANSKINA

Erakusketa gelaren eskabidea egiteko inprimakia

Izena:.....  
Adina: ..... NAN zk.:....., Kalea:  
..... Pisua:..... P.K.:  
..... Herria: ..... Telefonoa:  
..... E-maila: .....

**ALTSASUKO UDALARI BAIMENA ESKATZEN DIOT nire obrak ikusgai jartzeko Iortia  
Kultur Guneko erakusketa gelan.**

Ikusgai jartzeko obra mota: .....

Ikusgai jartzeko obra kopurua: .....

Obren gehieneko eta gutxieneko neurriak:

.....  
.....  
.....  
.....

Oharrak:.....

.....  
.....  
.....  
.....

Sinatzailea naizen honek erakusketa egiteko erregelamendu erantsian adierazitako baldintzaguzti-guztiak dakizkidala diot eta horiek guztiak onartzeko konpromisoa hartuko dudala, eskaerahau ontzat hartuz gero.

Altsasun, .....

Sinatua: Eskatzailea,